



# KONPAINIAREN AURKEZPENA

## I KONPAINIAREN HISTORIA

Donostiako Tranbia Konpainia Donostiako hiri garraio publikoa kudeatzen duen enpresa da, eta Donostiabus edo Dbus da bere izen komertziala.

Konpainia 1886an sortu zen Sozietate Anonimoa da. **1887ko uztailaren 18an** Donostiako Tranbia Konpainiak **garraio kolektiboaren lehen zerbitzua eman zien donostiarrei**. Gaur egun, eta 1981etik, Donostiako Udalarena da konpainiaren kapital sozial osoa.

130 urte baino gehiagoko tarte honetan, Konpainiak **bilakaera etengabea** izan du, **bai eskaintako zerbitzuei dagokienez, bai zerbitzuen kalitateari dagokionez**. Lehen zerbitzuetan zaldiek egiten zieten tira tranbiei, eta gaur egun Dbusek bere lehen autobus elektrikoa dauka eta aurrerapen teknologikoak ezartzen dihardu etengabe.

Konpainiako **langile guztien ahaleginari esker**, Udalari esker, akziodun gisa, urtero konpainiak dituen 28 milioi erabiltzaile baino gehiagori esker eta aurrerapen teknologiko berriei esker, Konpainia gaur egun Europako garraio publikoko enpresa aurreratu eta eraginkorrenetako bat da.

### I.1. Tranbiatik autobusera: Dbusen flotaren bilakaera

Konpainiak, hasieran 6 kotxe ireki eta 6 kotxe itxi zeuzkan, zaldiek tiratuta, eta laster 3 lineatan eman zuen zerbitzua.

Gaur egun flota eraginkorragoa eta iraunkorragoa da, egunetik egunera. Autobus elektrikoak eta hibridoak dira Dbusek ingurumena zaintzearen alde egiten duen apustuaren azken adibidea.



1887 - 1897: KONPAINIA ZALDIEK ETA MANDOEK TIRATUTAKO TRANBIEKIN HASI ZEN ZERBITZUA EMATEN.



1897: TRAKZIO ELEKTRIKOKO LEHEN TRANBIA SARTU ZEN.



1948: DONOSTIAN LEHEN TROLEBUSAK IBILTZEN HASI ZIREN.



1964: BI PISUKO TROLEBUSEK IBILGAILU ELEKTRIKOEN FLOTA OSATU ZUTEN.



1973: TROLEBUSAK BEHIN BETIKO KENDU ZIREN ETA FLOTA MODERNOAGOA JARRI ZEN.



2017AN DBUSEK HIRU AUTOBUS %100 ELEKTRIKO ETA 20 AUTOBUS HIBRIDO DAUZKA JADA.

## 2 MISIOA, BISIOA, BALIOAK ETA HELBURUAK

### Gure misioa:

“Donostiako Tranbia Konpainiaren bidez **Donostiako Udalak bidaiarien garraio publikoaren zerbitzua ematen du hirian**. Garraio-zerbitzuetan liderrak izateko eta zerbitzu lehiakorra eskaintzeko ahaleginetan etengabe egiten ari garen lanaren funtsezko helburua da gaur egun ditugun eta etorkizunean izan ditzakegun erabiltzaileek mugitzeko dituzten premiei ahalik eta ondoen erantzutea, **kalitate handiko zerbitzua** eta informazio praktikoa eskainita, lehiatzeko moduko kostuekin eta gure ingurumenaren iraunkortasuna bultzatuta”.

### Etorkizuneko bisioa:

“Donostiako Tranbia Konpainiak **gure hiriko mugikortasunaren alorrean liderra izan nahi du**, bai eskaintzen dituen zerbitzuengatik bai zerbitzu horien kalitatearengatik. Hainbat neurri garatuko ditugu gizarteak gure enpresaren gainean duen irudia hobetze aldera, irudi berri bat emanda, hain zuzen ere **gizartean aktibo eta erantzule** izaten jarraitzen duen eta garapena —hiriarena, gizartearena, ingurumenarena, erabiltzaileena eta bere langileena, bai eta berarekin harremanetan dauden beste agenteena ere— bultzatzen duen enpresarena.”



Konpainiaren balioak Dbuseko langile guztiek jarraitzen dituzten oinarriak dira.

<b>BEZEROARENGANA ETA ZERBITZUEN HOBEKUNTZARA BIDERATUTA</b>	<ol style="list-style-type: none"><li>1) Zerbitzuaren erabiltzaileen arreta hobetzeko politikak eta autobusaren erabilera bultzatzeko kanpainak.</li><li>2) Gure zerbitzuen etengabeko hobekuntza, bai eskainitako lineen kalitatean, bai ibilbidearen denboran, puntualtasunean eta erregularitasunean, segurtasunean eta erosotasunean.</li></ol>
<b>LANGILEAK</b>	<ol style="list-style-type: none"><li>1) Konpainian aukera-berdintasunaren eta gardentasunaren inguruko irizpiderik zorrotzenak betetzen direla zaintzen dugu.</li><li>2) Enpresaren barruan gizonen eta emakumeen arteko eskubide eta aukera berberak bermatzen ditugu.</li></ol>
<b>INGURUMENA</b>	<ol style="list-style-type: none"><li>1) Ingurumenaren arloan indarrean dauden araudi eta legedi guztiak betetzeaz arduratzen gara, eta haratago joaten saiaturiko gara, jarrera proaktiboa hartuz.</li><li>2) Garapen iraunkorra eta ingurumena errespetatuko duena defendatzen dugu, gure autobusetan azken aurrerapen teknologikoak ezarri eta erabiliz.</li></ol>
<b>KALITATEA</b>	<ol style="list-style-type: none"><li>1) Etengabeko hobekuntza, neurri zuzentzaileak hartzera baino gehiago prebentzio-neurriak hartzera zuzenduak.</li><li>2) Gure bezeroen aldetik gogobetetze handiagoa sortzeko eta hautemateko orientazioa, betiere prezio lehiakorrak erabiliz.</li><li>3) Eskainitako zerbitzuen barruan bikaintasuna lortzea.</li></ol>

Dbusen **lortu beharreko helburuak** hiru taldetan banatzen dira:

- 1) Garraio Publikoa bultzatzea, hau da, garraio publikoa eraginkorra izaten eta mugitzeko beste modu batzuekin bateragarri izaten laguntzea.
- 2) Hiritarrei eskaintzen zaien zerbitzua hobetzea, Garraio Publikoaren erabilera ibilgailu pribatuaren erabilera baino erakargarriago izan dadin.
- 3) Konpainiaren barruko gestioa hobetzea erabilgarri dauden baliabideak modu eraginkorrean erabiltzeko eta Konpainiako langile guztien inplikazio, konpromiso eta gogobetetze maila handitzeko.



### 3 ADMINISTRAZIO KONTSEILUA ETA ZUZENDARITZA TALDEA

Dbusen Administrazio Kontseilua da Dbusen gobernurako organo nagusia.

#### LEHENDAKARIA:

Eneko Goia Laso jn.  
(Donostiako alkatea)

#### LEHENDAKARIORDEA

Pilar Arana Pérez and.  
(Mugikortasuneko zinegotzia)

#### KONTSEILUKO KIDEAK:

Martín Ibabe Eceiza jn.  
Ernesto Gasco Gonzalo jn.  
Begoña Palos Barbero and.  
Miguel Ángel Díez Bustos jn.  
Axier Jaka Goikoetxea jn. (2017ko uztailaren 21era arte)  
Ayem Oskoz Urrutikoetxea jn. (2017ko uztailaren 21etik aurrera)  
José Luis Arrúe Pintó jn.  
Amaia Martín Garín and.  
Beatriz Catalina Sánchez Ordóñez and.  
Jesús María Mur Urretavizcaya jn.  
Igor Urain Zabala jn.

#### IDAZKARIA

Juan Carlos Etxezarreta Villaluenga jn.

#### IDAZKARIORDEA

Eva Ugarte Orozco and.

#### DBUSEKO ZUZENDARITZA TALDEA:

Igor Gonzalez Aranburu jauna, zuzendari gerentea  
Javier Vallejo Illaramendi jauna, Plangintzako eta Zerbitzuetako burua  
Eduardo Gonzalez Lopez jauna, zuzendari teknikoa





